



Legorretako Udala

Legorretako Udalaren adierazpena, herrian gertatutako eraso matxistaren harira

Asteburuan herrian gertatutako eraso matxistaren harira, Legorretako Udalak, EH Bilduren eta EAJ-PNVren adostasunarekin, honako adierazpen hau egin nahi du:

1. Legorretako Udalak gaitzespenik irmoena adierazi nahi du larunbat goizaldean herriko taberna batean gertatutako eraso matxistaren aurka.
2. Legorretako Udalak babes osoa azaldu nahi dio erasoak jasan duen emakumeari, baita haren inguruari ere, eta haren esku jarriko ditu arreta eta laguntza juridiko, sozial eta psikologikoko zerbitzuak.
3. Horrelako erasoak gure gizarte patriarkalean oraindik nagusi den kultura matxistaren adierazpena dira, eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman hierarkikoak erreproduzitzen dituzte. Emakumeen aurkako indarkeriak biztanleria osoari eragiten dio. Erakundeen ardura da herritarron eskubideak bermatzea, baina, era berean, indarkeria matxistarik gabeko herri baterantz aurrera egin nahi badugu, ezinbestekoa da herritar bakoitzaren jarrera aktiboa ere. Indarkeria matxista ez du etenik izango gizartea egituratzen duen matxismoarekin amaitu arte. Erantzukizuna kolektiboa da.
4. Legorretako Udalak konpromisoa berresten du herriko mugimendu feministarekin eta eragile sozialekin elkarlanean indarkeria matxistaren aurkako borroka aktiboan jarraitzeko. Bide horretan, Udalak bat egiten du mugimendu feministak asteburuko erasoak salatzeke antolatutako elkarretaratzearekin: bihar izango da, ekainak 6, 19:00etan, herriko plazan. Udalak herritar guztiei dei egiten die elkarretaratzean parte har dezaten.

Legorretan, 2023ko ekainaren 5ean.